


ZINEBI64

Zinebi Networking 2022:
Dokumentalen Sorgunea
V Foro Profesional de
Cine Documental de Bilbao

Bilbao



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

eitb

ZINEUSKADI

Europa
Creativa
MEDIA

epe-apv

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA
zinebi.eus #zinebi64

PARTE HARTZEKO OINARRIAK ZINEBI NETWORKING 2022. DOKUMENTALEN SORGUNEA BILBOKO ZINEMA DOKUMENTALEKO V. FORO PROFESIONALA


Edukia

A.-	GOGOETA OROKORRAK ETA FOROAREN XEDEA	2
B.-	PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA KONPROMISOAK	2
C.-	IZENA EMATEKO EPEA ETA MODUA	2
D.-	DOKUMENTUAK	3
E.-	HAUTAKETA-PROZESUA ETA -IRIZPIDEAK	3
F.-	DINAMIKA	3
G.-	PARTE-HARTZEA ONARTZEA	3
H.-	SARIAK	4
I.-	HAUTATUTAKO FILMEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK	4
J.-	IRUDI-ESKUBIDEAK	5
K.-	DATU PERTSONALEN BABESA	5
L.-	PROGRAMA ETETEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA. OINARRI HAUEK ALDATZEA	6
M.-	GATAZKA-KONPONKETA	6
N.-	KONTAKTUA	6

ZINEBI64

Zinebi Networking 2022:
Dokumentalen Sorgunea
V Foro Profesional de
Cine Documental de Bilbao

Bilbao



zinebi.eus #zinebi64

A.- GOGOETA OROKORRAK ETA FOROAREN XEDEA

1.- ZINEBI - Bilboko Zinema Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak (aurrerantzean, «ZINEBI») Bilboko Zinema Dokumentaleko V. Foro Profesionala ospatuko du: ZINEBI NETWORKING 2022. DOKUMENTALEN SORGUNEA (aurrerantzean, «ZINEBI NETWORKING 2022»). Ekimenak zinema dokumentaleko sorkuntza sustatzea eta haren ikus-entzunezko ekoizpena areagotzea du helburu.

2.- Foroa Bilboko Udalak antolatuko du, Euskal Produktoreen Elkartearekin (EPE-APV) batera. Halaber, honako erakundeekin finantziatzen izango du: Zinemagintzaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua (ICAA), Europar Batasuna -NextGenerationEU, EITB MEDIA S.A.U. (EITB), Zineuskadi, Europa Creativa Desk Media Euskadi, bai eta Cannes Docs eta Scottish Documentary Institute erakundeekin lankidetzara ere.

3.- Aurten, ZINEBIren 64. edizioaren testuinguruan izango da Bilboko Zinema Dokumentaleko V. Foro Profesionala. Gainera, jarduera-eremua zabalduko du, espainiar estatu osoan zehar sortzen ari diren proiektuak barne hartuko baititu. Hartara, eskualdeetako ikus-entzunezko sarea indartzen eta zinema- eta ikus-entzunezko industriako eragileen eta nazioarteko zein bertako erakundeekin artean dagoen harremana dinamizatzen lagunduko du.

4.- Ekintza horren bidez, ZINEBIk hainbat konpromiso hartzen ditu: izaera dokumentaleko proiektu sortzaile eta independenteak garatzen laguntzea; zinemagileentzako sormena, gogoeta, aholkularitza eta bultzada guneak eraikitzea; eta topaketak sustatzea ekoizpen zinematografikoa eta enpresen zein profesionalen belaunaldi berrien nazioarteko proiektzioa babesten dutenekin, hala nola sortzaile, ekoizle eta erakundeekin. Batez ere, parte-hartzaileen eta profesional zein adituen arteko harremana erraztea da xedea, parte-hartzaileek aholkularitza jaso dezaten beren proiektuak arrakastaz garatu eta ekoizteari buruz.

B.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA KONPROMISOAK

1.- ZINEBI NETWORKING 2022 zabalik dago Euskadin edo espainiar estatuan bizi diren ekoizle eta zuzendarientzat.

2.- Zuzendari bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du, baina produkzio-etxe batek bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu.

3.- Aurkeztutako proiektuek film luze dokumentalak edo ez-fikziozko film luzeak izan beharko dute, eta garapen aurreratuan edo ekoizpen fasean egon beharko dute. Film luzetatik hartuko dira 60 minutu edo gehiagoko iraupena duten film zinematografikoak. Ez da onartuko honelako lanik: postproduktzioa master digitala sortu edo amaitzera arte iritsi diren lanak; izena emateko epea itxi aurretik jendaurrean aurkeztu diren lanak, edo nazionalitatea eta adinaren arabera kalifikazio-ziurtagiria eskatu duten lanak.


4.- Proposamenek jatorrizkoak izan behar dute, hirugarrenei plagiorik edo usurpaziorik egin gabe.

5.- Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute antolatzaileek eskatzen dieten dokumentazio gutzia bidaltzeko.

C.- IZENA EMATEKO EPEA ETA MODUA

1.- Izena emateko epea 2022ko abuztuaren 19tik 2022ko irailaren 29ra bitartekoa izango da, biak barne.

2.- Izena ematea doakoa da.



3.- ZINEBI NETWORKING 2022 ekimenean parte hartu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek nahitaez eman beharko dute izena [web inprimaki honen](#) bidez; oinarriak onartu eta bertan eskatutako datu pertsonalak zehaztu beharko dituzte (NAN/AIZ, jaiotze-data eta harremanetarako datuak, besteak beste).

4.- Behin inprimakia bete eta bidalita, oinarri hauetan eskatutako dokumentuak bidali beharko dira helbide elektronikoa honetara: festival@zinebi.eus.

D.- DOKUMENTUAK

Izena emateko [web-inprimakia](#) bete ondoren, zerrendako dokumentuak bidali beharko dira, PDF formatuko fitxategi bakarrean. * ikurra duten dokumentuak derrigorrezkoak dira.

1. Proiektuaren fitxa teknikoa eta artistikoa *
2. Sinopsia gaztelaniaz eta ingelesez (gehienez 600 karaktere) *
3. Proiektuaren *teaserra*, ingelesezko azpitituluekin (gutxienez 4 minutuko iraupena) *
4. Proiektuaren asmoen oharra eta garapen-egoera (gehienez 2.100 karaktere) *
5. Proiektuaren azalpen-memoria (gehienez 3.500 karaktere) *
6. Egin nahi den proiektuaren proposamen estetiko eta artistikoa *
7. Proiektuaren aurrekontu orokorra eta zehatza (ahal dela, ICAAren formatuan) *
8. Kronograma eta produkzio-plana *
9. Finantzaketa-plana *
10. Gidoia edo tratamendua
11. Zuzendariaren biografia eta filmografia gaztelaniaz eta ingelesez *
12. Ekoizlearen biografia laburra gaztelaniaz eta ingelesez *
13. Zuzendariaren aurreko lanetarako estekak *

E.- HAUTAKETA-PROZESUA ETA -IRIZPIDEAK

1.- Aurkeztutako proiektuetatik, hautaketa-batzordeak, Jaialdiaren zuzendaritzarekin batera, gehienez 15 aukeratuko ditu (Euskal Autonomia Erkidegoko 6 gehienez, eta espainiar estatuko 9 gehienez, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo). Proiektuak bi egunetan zehar aurkeztuko dira (azaroak 14-16), ZINEBIren testuinguruan.

2.- Hautaketan, kontuan hartuko dira proiektu bakoitza gauzatzeko ideia, proposamen estetiko, bideragarritasuna eta aukerak. Hautaketa hori e-mailez jakinaraziko zaie proiektu bakoitzaren ekoizleei, aurtengo urteko urrian.


F.- DINAMIKA

1.- Parte-hartzaile guztiak tutoretza-saio pertsonalizatua izango dute, sektoreko profesional baten bermearekin. ZINEBI NETWORKING jardunaldietan zehar, antolatzaileek ezarritako topaketetara joango dira, Pitch edo proiektuaren aurkezpen publikoa egingo dute, eta aholkularitza emateko ad hoc antolatutako banan-banako saioetan ere parte hartuko dute.

2.- Foroa amaitutakoan, erakundeak konpromisoa hartzen du 2022-2023an topaketak egiteko online bidez proiektuen jarraipena egiteko, eta hautatutako proiektuei laguntzeko zein aholkuak emateko

G.- PARTE-HARTZEA ONARTZEA

1.- Esleipenetik aurrera, hautatuak 5 egun balioduneko epea izango dute foroan parte hartzea onartzeko. Behin azken hautaketa iragarrita, hautatutako proiektu guztiak Oinarriak onartzeko akordioa sinatuko dute, bai eta Oinarrietan ezarritako konpromisoak eta betebeharrak onartzen dituzten zinpeko aitortpena ere.



2.- Hautatutako proiektu bakoitzeko, Jaialdiak honako gastu hauek hartuko ditu bere gain ekoizlearentzat eta zinemagilearentzat:

- Bilbora joan-etorria espainiar estatuko edozein helmugatetik
- Ostatura eta dietak
- Jaialdiko emanaldi guztietara joateko baliozko akreditazioa

H.- SARIAK

1.- Zinema-industriako profesionalek eta adituek osatuko dute epaimahaia, eta aholkuak emango dizkiete zuzendari zein ekoizleei, aurkezpenen ondoren eta banan-banako bileretan. Sariak jaialdiaren amaiera ekitaldian banatuko dira, azaroaren 18an, Arriaga Antzokian. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

1.1. ZINEBI NETWORKING 2022 Euskadi saria

Epaimahaiak hautatutako proiektuetatik, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako pertsona fisikoek edo juridikoek ekoiztutakoek 10.000 euroko saria jaso dezakete.

Sari hori EITBri dagokio eta, dagokion atxikipena aplikatu ondoren, zuzenean ordainduko dio irabazleari. Hori guztia, Jaialdia indarrean dagoen bitartean egin daitezkeen zerga-aldaketei kalterik egin gabe.

1.2. ZINEBI NETWORKING 2022 Estatala saria

Epaimahaiak hautatutako proiektuetatik, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi diren espainiar estatuko pertsona fisiko edo juridikoek ekoiztutakoek 10.000 euroko saria jaso dezakete.

1.3. Halaber, EITBk ZINEBI NETWORKING 2022: DOKUMENTALEN SORGUNEA proiektuan parte hartuko du. Proiektuaren xedea euskal talentua bultzatzea da, eta 10.000 euroko balioa du. Horretarako, proiektua garatu ondoren, irabazleak ustiapen-eskubideak lagatzeko kontratua sinatuko du EITBekin, lagapenaren baldintzak definitzeko. Kontratu horretan, gutxienez, *free tv* linealeko 3 pase sartuko dira, bai eta hiru hilabeteko leiho bat ere, EITBren web-orriaren eta plataforma operatuen bidez eskuragarri jartzeko. Proiektuaren garapena amaitu ondoren, EITBko proiektuak baloratzeko batzordeak hala iritiz gero, ekarpen hori handitu ahal izango da eskubideen lagapenaren irismena zabaltzearen truke.


I.- HAUTATUTAKO FILMEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

1.- ZINEBI NETWORKING 2022. DOKUMENTALEN SORGUNEA 2022ko azaroaren 14tik 16ra izango da, Bilbon. Hautatutako proiektuetako parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute programako zuzeneko eta online jardura guztietan parte hartzeko, bai eta foroa garatzen den egunetan Bilbon bertan egotekoa ere, behar bezala justifikatutako ezinbesteko arrazoirik ez bada. Baldintzak betetzea ezinezkoa bada, antolakuntzak eskubidea izango du beste proiektu bat gonbidatzeko.

2.- Antolatzaileek eskatutako informazioa eta promoziorako materiala emango dute parte-hartzaileek, jaialdiaren katalogoa, eskuko programa, web-orria, sare sozialak eta abar egiteko, eta baimena emango dute datu horiek helburu informatiboetarako zabaltzeko.

3.- Foroan parte hartu duten eta azkenean garatu diren lanek argi eta garbi adierazi beharko dute filmaren amaierako kredituetan proiektuak ZINEBI NETWORKING 2022ren laguntza izan zuela, honako legenda honen bidez: «ZINEBI NETWORKING 2022 Foro Profesionalean hautatutako proiektua», eta erakundeak emandako logotipoak ere jarri beharko dira. Era berean, parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute, ahal den neurrian, parte-hartze hori aipatzeko komunikazio publiko eta publizitario guztietan, bai eta kartel, Press Kit, prentsa-ohar, sare sozial, webgune, askotariko sustapen-material eta gainerako euskarri fisiko eta digitaletan ere.

4.- ZINEBI NETWORKING 2022 sariak lortzen dituzten lanek hasierako kredituetan adierazi beharko dute halabeharrez proiektuak ZINEBI NETWORKING 2022. DOKUMENTALEN SORGUNEAren laguntza izan duela, honako legenda honen bidez: «ZINEBI NETWORKING 2022 Foro Profesionaleko proiektu irabazlea», eta erakundeak emandako logotipoak ere jarri beharko dira. Era berean, proiektu irabazleek konpromisoa hartzen dute



parte-hartze hori aipatzeko komunikazio publiko eta publizitario guztietan, baita kartel, Press Kit, prentsa-ohar, sare sozial, webgune, askotariko sustapen-material eta gainerako euskarri fisiko eta digitaletan ere.

5.- Film luzeak amaitu ondoren, proiektu irabazleek konpromisoa hartzen dute ZINEBIri azken lana modu pribatuan ikusteko esteka bat emateko, lehen komunikazio publikoa egin aurretik. Gainera, proiektua espainiar estatuan lehen aldiz jendaurrean erakusten denetik bi hilabeteko epean, film luzearen kopia bat entregatu beharko diote ZINEBIri, zinema- eta ikus-entzunezko ondarea babesteko helburuak bete ditzan. ZINEBIk ezingo du kopiaren erabilera publikoa egin ekoizlearen alde aurreko baimenik gabe.

6.- ZINEBIk konpromisoa hartzen du proiektu irabazleak programazio-taldearekin batera baloratzeko, espainiar estatuan jaialdiaren sail ofizial edo paraleloetako edozeinetan estreinatu ahal izateko, eta horrek ez du produkzio-etxeak lana estreinatze inolako derrigortasunik ekarriko.

7.- Hautatutako proiektuek partaidetza-ziurtagiria jasoko dute ZINEBIren erakundearen aldetik.

J.- IRUDI-ESKUBIDEAK

1.- Parte-hartzaileek baimena ematen diete ZINEBIri eta Bilboko Udalari, bai eta horiek baimendutako hirugarrenei ere, honetarako: haien irudia, ahotsa, izen-abizenak (eta, hala badagokio, izen artistikoa), argazkia, erretratua eta jasotzeko moduko edozein bitarteko grafiko, tekniko edo artistikok erreproduzitutako edo sortutako irudi fisikoa hartzeko, finkatzeko edo erreproduzitzeko; biografia, espediente profesionala eta aurreko identifikazio pertsonaleko gainerako datuak edo elementuak ere bai (aurrerantzean, gorago aipatutako guztiari «**irudia**» esango zaio).

2.- Irudia hartzeko eta erabiltzeko baimena ematen da, proiektua eta ZINEBI NETWORKING 2022ren garapena dokumentatzeko eta sustatzeko, legeak onartzen duen gehienezko denbora-tartean, mundu osoan zehar, eta edozein ustiapen-modalitate, euskarri, formatu edo hedabideren bidez. Aurreko baimenean berariaz jasotzen da ZINEBI NETWORKING 2022an eta ZINEBIrekin zerikusia duten mota guztietako jarduera eta ekitaldietan parte-hartzen den bitartean irudia hartzea (hala nola, adierazpen gisa, argazki-saioetan, aurkezpen publikoetan, prentsaurrekoetan, etab.).

K.- DATU PERTSONALEN BABESA

1.- Tratamenduaren arduraduna: ZINEBI. Centro de Actividades Culturales Teatro Arriaga, S.A.; helbidea: Arriaga Plaza, 1, 48005 Bilbo / Bizkaia; IFZ: A48211205. DPD kontakutua: informacion@teatroarriaga.eus.

2.- Tratatu beharreko datuak: eskabideak aurkezteko inprimakian eta erantsitako dokumentuetan jasotakoak; eta proiektuak hautatzeko prozesuan ZINEBIri ematen zaion informazioa.

3.- Tratamenduaren helburua: ZINEBI NETWORKING 2022 sari-ematearen kudeaketa eta garapen egokia.

4.- Erabaki automatizatuak: ez da profilen segmentaziorik egiten eta ez da erabaki automatizaturik hartzen.

5.- Eskaeretakako datuak ZINEBI NETWORKING 2022ren hautaketa-prozesuak eta/edo garapenak irauten duen bitartean gordeko dira. Epe hori igaro ondoren, datuak blokeatuta gorde ahal izango dira, antolatzaileen legeko betebeharrak betetzeko beharrezkoa bada.


6.- Jasotzaileak: epaimahaia osatzen duten kideak eta antolatzaileak, bai eta Bilboko Udaleko profesional independenteak eta kideak ere.

7.- Eskubideak: ZINEBI NETWORKING 2022ri lotutako edozein pertsonak eskubidea du ZINEBI beraiei dagozkien datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez baieztatzeko. Interesduna den aldetik, eskubidea du bere datu pertsonalak ikusteko, datu okerrak zuzentzeko edo, hala badagokio, ezabatzeko eskatzeko, besteak beste, datuak ez badira beharrezkoak dagoeneko, eskatu ziren helburuetarako.

ZINEBI64

Zinebi Networking 2022:
Dokumentalen Sorgunea
V Foro Profesional de
Cine Documental de Bilbao

Bilbao



Egoera jakin batzuetan, bere datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango du; kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko bakarrik gordeko dira.

Egoera jakin batzuetan, eta bere egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik, aurka egin ahal izango dio bere datuen tratamenduari. ZINEBIK datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta arrazoi legitimo larriengatik, edo erreklamazio posibleak egiteagatik edo defendatzeagatik.

Datuen tratamendua parte-hartzailearen adostasunean oinarrituta badago, edozein unetan ezeztatu ahal izango du.

Legez bidezkoa den kasuetan, datuen eramangarritasunerako eskubidea izango du; horrek esan nahi du eskubidea duela ZINEBI tratatzen ari den bere datu pertsonalak jasotzeko eta gailu propio batean gordetzeko. Eskubide horrek aukera ematen dio ZINEBIri ere bere datuak tratamenduaren beste arduradun bati jakinarazteko eskatzeko.

Zure datuen tratamenduari buruzko edozein kontutarako, bai eta egindako datuen tratamenduekin lotuta ZINEBIri helarazi nahi diozun gorabehera edo komunikazioen bat izanez gero ere, festival@zinebi.eus helbidera jo dezakezu, eta zure NANaren kopia bat edo zure eskubideak gauzatzeko legez identifikatzen zaituen beste dokumentu bat erantsi beharko duzu.

L.- PROGRAMA ETETEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA. OINARRI HAUEK ALDATZEA

1.- ZINEBIK beretzat gordetzen du ZINEBI NETWORKING 2022 erabat edo zati batean eteteko, atzeratzeko edo ezeztatze eskubidea, ezinbesteko arrazoiengatik edo behar bezala justifikatutako arrazoiengatik; etete, geroratze edo ezerezte horrek ez dio inolako erantzukizunik ekarriko ZINEBIri, eta ahal bezain laster jakinaraziko zaie parte-hartzaileei.

2.- Halaber, ZINEBIK eskubidea izango du oinarri hauek osorik edo zati batean aldatzeko, baita oinarri eta arauak salbuespen puntualak ezartzeko ere, ezinbesteko arrazoiengatik edo ZINEBI NETWORKING 2022 behar bezala garatzeko behar-beharrezkoa denean, behar bezala arrazoiengatik. Oinarriak aldatuz gero, ZINEBIK egoera horren berri emango du, oinarri hauek zabaldu edo argitaratu dituen bitarteko berberen bidez.

M.-GATAZKA-KONPONKETA

Oinarri horien interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak zein aplikaziotik sor daitezkeen gatazkak ZINEBIren antolatzaileek ebaziko dituzte.

N.- KONTAKTUA

Oinarriei buruzko edozein zalantza argitu behar izanez gero, helbide honetara jo dezakezu: festival@zinebi.eus.